Erdi Aroa GIZARTE 5

Al Andalus

Osatu testua falta diren hitzak idatziz hutsuneetan.

arroza / meloia / azukrea / arabiar / orburua / alberjinia / naranja / azafraia

Musulmanek gaur egun erabiltzen ditugun [ ] zifrak ekarri zituzten iberiar penintsulara. Horrez gain, beste gauza batzuk ere ekarri zituzten: [ ] ren moduko zerealen laborantza; [ ] ren edo laranjaren moduko fruta; berdurak, [ ] eta [ ] , esate baterako; espeziak, [ ] adibidez, eta beste landare batzuk, azukrea, esaterako.

Irakurri

Erdi Aroko gremioak

Gremio bat lanbide bera zuten **artisauen elkartea** zen. Gremioek produktuen kalitatea eta prezioa kontrolatzen zituzten. Artisauen artean **berdintasuna** egotea ere bermatzen zuten, **leihakortasuna ekidituz**. Horretarako, lehengaiak prezio berean saltzen zizkieten gremioko lantegi guztiei eta denek erabiltzen zituzten lantresna berdinak. Hori guztia lantegietako lanaren kalitatea eta baldintzak antzekoak izan zitezen. Beharrezkoak ziren produktuen mota eta kantitatea ere kontrolatzen zuten, ekoizpenaren eta eskaeraren artean oreka egon zedin.

Gremio bereko lantegiak kale berean zeuden.

Gremioetan hiru langile maila zeuden:

Ikastuna: 12 eta 14 urte zituenean sartzen zen lantegira eta 6 bat urtez geratzen zen ikastun moduan. Lantegiko mailarik baxuena zen. Maisuaren aginduetara zegoen eta ezin zuen hutsik egin.

Ofiziala: Esperientzia zuen artisaua zen eta dirua irabaz zezakeen egiten zuen lanarekin. Maisuak ikuskatzen zuen haren lana hobetzeko asmoz. Tarteko maila zen.

Maisua: Lantegiko mailarik altuena zen. Maisua izateko "azterketa" moduko bat gainditu behar zen. Hori gaindituz gero, lantegi propioa zabal zitekeen. Maisuek ikastunak hartzen zituzten, ofizioa irakasten zieten eta janari eta lo egiteko lekua ematen zizkieten.

Erdi Aroko gremioen artean ondorengoak zeuden: hargina, harotza, eltzegilea, zurgina, titiriteroa, juglarea, errotaria, gaztagilea, okina, merkataria, beiragilea, saskigilea, galdaragilea, espartzu-langilea, kandelagilea, ostalaria, dendaria, zapataria, kapelugina, ehulea, jostuna, tabernaria, etabar.

LIVEWORKSHEETS

Erantzun

Zer zen gremio bat?

Kale berean bizi ziren artisauen elkartea.

Lanbide bera zuten artisauen elkartea.

Zein zen haien funtzioa?

Germio bereko artisauek merkatuan lehiatzeko baldintza berdinak izatea.

Gremio bereko artisauen artean berdintasuna egotea lehia ekiditzeko.

Nola lortzen zuten?

Prezio- ordutegi- eta tailer bakoitzeko lan baldintza- askatasuna sustatuz, eta eskaintza eta eskaerak ekoizpena erregulatzen dutela bermatuz.

Prezioak, kalitatea eta lan-baldintzak kontrolatuz eta biztanleria hornitzeko behar zen produktu-kopurua finkatuz.

Zenbat maila zeuden lantegietan zeuden artisauen artean?

Hiru mota zeuden: ikastuna, ofiziala eta maisua.

Hiru mota zeuden: ikastuna, zalduna eta maisua.

Zenbat irauten zuen artisau baten ikasketak ofiziala izan aurretik?

12 urte gutxi gorabehera

6 urte gutxi gorabehera

LIVEWORKSHEETS

Lotu.

- Leihoetako beirateak erabiltzen dituzte.
- Katedralak eraikitzen hasi zen.
- Horma lodiak eta leiho txikiak dituzte.
- Kanoi-ganga erabiltzen dute.

- Erromanikoa
- Gotikoa

Gaztelua | Jaunaren basoak | Ur-errota | Jaunaren soroak | Eliza | Nekazariaren ortua



LIVEWORKSHEETS